

Etxean ala eskolan ikasi?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Gehienok umeak eskolara eramaten baditugu ere, etxearen aldeko aukera egiten duen jendea dago, gero eta gehiago, gainera. Zuri zer iruditzen zaizu?

Gai horretan oinarrituta ariketa hauek egin ditzakezu:

- Bideoa ikusi eta esaldiak egia ala gezurra diren esan.
- Elkarriketa irakurri eta "berriz/ordea" landu.



1- Bideoa ikusi eta ulertu

Ikusi Luisa Reizabali egindako elkarriketa eta esan beheko esaldiak egia ala gezurra diren.

Haurra etxean hezten dugunean, arreta guztia ikaslearengan jartzen dugu.

Egia ☐ Gezurra ☐

Gurasoa haurraren irakaslea izatea ez da ona beraien harremanerako.

Egia ☐ Gezurra ☐

Etxean ume bat hezteak ez du abantailarik.

Egia ☐ Gezurra ☐

Arrazoi asko egon daitezke umea etxean hezteko.

Egia ☐ Gezurra ☐

Guraso batek haurra etxean hezteko hiru ikasketa-modu jarrai ditzake.

Egia ☐ Gezurra ☐

Etxetik eskolatik bezain ondo formatuta atera daitezke.

Egia ☐ Gezurra ☐

Zenbait unibertsitatek etxean ikasitako gazteak nahi dituzte.

Egia ☐ Gezurra ☐

Erljio-eskoletan metodologia tradizionala jarraitzen dute.

Egia ☐ Gezurra ☐

Etxeko lan gutxi batzuk egunero bidali beharko lirateke.

Egia ☐ Gezurra ☐

Luixaren ustez, haurrak etxean heztea hobe da.

Egia ☐ Gezurra ☐

2- Testua irakurri

Irakur ezazu testua eta egin ezazu jarrian duzun ariketa.

Haurrak eskolara hiru urterekin joaten hasten dira. Gure inguruan, behintzat, hori egiten dute gehienek. Egokitzen egin eta gero, egunero, ordu berean, haurrak ikastetxera eramaten dituzte. Legeak honakoa esaten du: umeek sei urtetik hamasei urtera bitartean (LH eta DBH) joan behar dute eskolara. Umeen ikastetxea familiak aukeratzen du: eskola publikoa, pribatua, erlijiosoa, alternatiboa... abanikoa gero eta zabalagoa da.



Hala ere, badago jende askok kontuan hartzen ez duen beste aukera bat: haurrak etxean heztea. Euskal Herrian zenbat familiak hartu dute erabaki hori? Ezin da jakin, ez baitago zerrendarik. Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, ume askok ikasten dute etxean.

Luixa Reizabal Arruabarrena (Donostia, 1964) Psikologian doktorea da, eta, 1995. urteaz geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia fakultatean irakaslea da. Haurrak etxean edo eskolan heztea, hezkuntza- motak edo etxeko lanak izan ditugu hizpide berarekin.

HAURRAK ETXEAN EDO ESKOLAN HEZTEA

Luixaren ustez, ume bat etxean heztea alde onak ditu, baina baita eskolan heztea ere: “Etxeko hezkuntza haur bakoitzaren beharretara egokituko dugu, eta ikasketa-prozesua horren arabera antolatuko dugu. Ikastetxeetan, berriz, gela bakoitzean, gero eta ume gehiago daude, eta ez da hain pertsonalizatua”. Bestalde, etxean ikasten duen umea bakarrik egongo da, ez da jende askorekin harremanetan egongo. “Etxean hezitako haurrei elkarrizketak egin dizkiete, eta, esaten dutenez, beraientzat hutsunerik handiena lagunik ez izatea da”, kontatu digu Reizabalek. Beraz, garapen sozialerako, eskolara joatea hobea dela uste du: adin berekoekin edo zaharragoekin harremanetan egoteko, irakasleekin, guraso gehiagorekin... “Harreman horiei esker, euren burua hobeto ezagutzen dute, eginbeharrak eta rolak ikasten dituzte, irakasle-ikasle zereginak, arauak... Etxean ezinezkoa da hori”, azaldu digu.

Etxeko txikia eskolara ez bidaltzeko, ordea, hainbat arrazoi izan ditzake familiak: haurra gaixorik egotea, bizimodu konbentzionala ez duen familia batekoa izatea (zirkukoa, adibidez), leku isolatu batean bizitzea (urrutiko baserri batean, esaterako) edo arrazoi ideologikoengatik ere izan daiteke: “Eskolak jendartean nagusi diren balioak transmititzen ditu. Gurean, sistema kapitalistarenak, hain zuzen ere. Familia bati sistema hori gustatzen ez bazaio, agian, umea etxean heztea erabakiko dute”. Horrez gain, erlijioa edo umeak bizitako bullying-a izan daitezke beste bide hori aukeratzeko arrazoiak.

ETXEKO IRAKASLEEI JARRAIPENA

Etxeko irakasleek haurren heziketa hiru modutan planifika dezakete: batetik, umearen kezkei edo interesei jarraituta; bestetik, curriculum formala seme-alabaren beharretara egokituta; edo, azkenik, curriculum formalari bere horretan jarraituta. “Edozein bide aukeratuta ere, irakasleak ordu gehienak etxean emango ditu, eta lan gogorra egin beharko du”, azaldu du.

Erregulazioa zehazki zein den ez daki Reizabalek, baina jarraipen bat egitea aukera bat da berarentzat: "Topaketa bat egitea, esperientziak partekatzea, eta elkar ezagutzea ona da. Gainera, bertan profesional batzuk egon daitezke umeen garapena aztertzeko". Etxeko hezkuntza amaitu eta gero, prestakuntza akademikotik ongi prestatuta irteten dira. "Atzerrian, zenbait unibertsitatek horrela ikasi duten pertsonak eskatzen dituzte".

ETXEKO LANAK ONURAGARRIAK DIRA?

Ikastetxe bat aukeratzekoan, zer hartzen dugu kontuan? Metodologia. Erlijio-eskoletan, adibidez, metodologia tradizionala jarraitzen dute. "Ikasgelan, irakaslea da jaun- andre eta jabe; berak bere espazioa du, eta hurrek jaso eta idatzi egin behar dute", azaldu digu Luixak. Hezkuntza- mota honetan, hurrei etxeko lanak agintzen zaizkie. Horiek dira nagusi gure sisteman.



Baina badaude Amara Berriren sistema bezalakoa jarraitzen dutenak. Bertan, hurrek txokotan ikasten dute, eta ez diete etxeko lanak agintzen, tarteka-marteka soilik. "Nire ustez, hurrek etxeko lanekin motibazioa galtzen dute, gogorik gabe egiten dituzte, askotan haserre, eta nire uste apalean, ez dute ezertarako balio".

Luixaren iritziz, jolastea ezinbestekoa da umeentzat: "Garapen kognitiboa, fisikoa eta soziala behar bezalakoa izateko, hurrek jolastu egin behar dute. Jolasten asko ikasten dute, eta beraientzat esanguratsua den modu batean, gainera".


Eta zuk, etxeko lanak beharrezkoak direla uste duzu? Zergatik? Haurrak etxean edo ikastetxean hezteak, zer da egokiagoa?

*Lotu esaldi hauek "**berriz**" edo "**ordea**" erabilita.*

Etxean ikasten den umea bakarrik egongo da. Eskolan ikasten duena jende askorekin egongo da.

Guraso gehienek umeak eskolara eramaten dituzte. Batzuek eskolan hezteak erabakitzen dute.

Atzerriko zenbait unibertsitatek etxean ikasitako umeak eskatzen dituzte. Hemengoek, ez.



ADOSTASUNA

DESADOSTASUNA

IRITZIA EMATEKO

Nire ustez / iritziz...
 Nik uste dut... -(e)la
 Nik ez dut uste... -(e)nik
 Niri irudutzen zait... -(e)la

[illegible]

1- Bideoa ikusi eta ulertu

Haurra etxean hezten dugunean, arreta guztia ikaslearengan jartzen dugu.

✓ Egia

Gurasoa haurraren irakaslea izatea ez da ona beraien harremanerako.

✓ Gezurra

Etxean ume bat hezteak ez du abantailarik.

✓ Gezurra

Arrazoi asko egon daitezke umea etxean hezteko.

✓ Egia

Guraso batek haurra etxean hezteko hiru ikasketa-modu jarrai ditzake.

✓ Egia

Etxetik eskolatik bezain ondo formatuta atera daitezke.

✓ Egia

Zenbait unibertsitatek etxean ikasitako gazteak nahi dituzte.

✓ Egia

Erljio-eskoletan metodologia tradizionala jarraitzen dute.

✓ Egia

Etxeko lan gutxi batzuk egunero bidali beharko lirateke.

✓ Gezurra

Luixaren ustez, haurrak etxean heztea hobe da.

✓ Gezurra

2- Testua irakurri

- Etxean ikasten duen umea bakarrik egongo da; eskolan ikasten duena, ordea / berriz, jende askorekin.

- Guraso gehienek umeak eskolara eramaten dituzte; batzuek, ordea / berriz, eskolan heztea erabakitzen dute.

- Atzerriko zenbait unibertsitatek etxean ikasitako umeak eskatzen dituzte; hemengoek, ordea / berriz, ez.